



Umeak Marielutseko haur eskolan. Espezialistek oso garrantzitsu jotzen dute ume eta guraso arteko harreman ona.

## 'Umeen seinaleak' nola ulertu hitzaldia emango du Rafael Cristobal haur-hezkuntzan espezialistak

■ Hitzaldia gurasoei zuzendua dago eta Biterin izango da, gaur arratsaldeko 19:15etan.

UDAL Haur Eskolak antolatuta, Rafael Cristobal haur-hezkuntza espezialistak hitzaldia emango du gaur Hernanin, umeak hobeto ulertzeko klabeak azaltzeko. Rafael Cristobal formazioz psikiatra da eta Mondragon Unibertsitatean haur-hezkuntzari buruzko klaseak ematen ditu.

Espezialistak gaur emango duen hitzaldiaren izenburua da *0-3 urte bitarteko umeen seinaleetan barrena*. Planteamendu horretan, guraso eta umearen arteko harreman klabea da umeak gero behar bezala desarrolatzeko bai buruz, bai emozio aldetik eta baita gizarteko harremanei dagokionean ere.

Batez ere aurreneko 6 hilabeteak jotzen dira oso garrantzitsuak umeak gero izango duen garapenerako eta horregatik da garrantzitsua hauraren komunikazio seinaleak ondo ulertzea, gurasoen erantzuna ere egokia izateko. Zentzu horretan, arretak eta haurra ondo ezagutzeko paper inportantea jo-

katzen dute oso, Monda-gron Unibertsitateko kideak Kronikari adierazi dionez. Eta arreta hori egokia izateko, berriz, zerkusi haundia du gurasoen egoera pertsonalak eta inguruan duen laguntzak.

Hernanin 600 ume inguru daude 0-3 urte bitartekoak. Hitzaldia, arratsaldeko 19:15etan izango da. □

## Musika kontzertuak gaur Biterin eta Sandiusterrin

■ Musika Bandak 'Moderno-klasikoak' kontzertua emango du, 20:00etan Biterin ■ Berako Musika Eskolako ikasleek Sandiusterrin egingo dute emanaldia, 19:00etan.

MUSIKA Bandak Moderno-klasikoak kontzertua emango du gaur iluntzean Biterin, Zipri Otxotorena zuzendari duela. Bandak sei kantu ezagun interpretatuko ditu: *The Beatles Gold, You can leave*

*your hat on, The Cream of Clapton, ABBA forever, Sounds of Simon & Garfunkel eta We are the Champion*. Azken bi kantuetan Bandak Kantuz abesbatzaren laguntza izango du.

**Berako ikasleak** Musika Eskolak antolatuta, gaur arratsaldean Berako Eskolako musikari gazteek kontzertua emango dute gaur Sandiusterrin. Denera, sei talde etorriko dira eta estilo

ezberdinak joko dituzte: ganbara musika, pop-rocka, txistua, akordeoia eta abar.

Kontzertu bukaeran Bera eta Hernaniko ikasleek elkarrekin Uruñelaren *Martxa* joko dute. □

## Lasarteko emakume bat hil da kotxe akzidentean

ATZO eguerdian, Chillida-Leku parean bi kotxe elkar jo zuten, eta akzidentean lagun bat hil zen, C.Z.G. Lasarteko 49 urteko emakumea. Istripu berean, A.O.G Tolosako 20 urteko mutilak zauriak izan zituen. Ertzaintzak diligentiak hasi ditu istripua zergatik izan den argitzeko. □

## AuB-k firma bilketa deitu du biharko

AUTODETERMINAZIOREN Aldeko Bilguneak firma bilketa deitu du biharko, datozen Foru Hauteskundeetara begira. Firma bilketa eguerdiko 12:00etan egingo da Udaletxean. □

## HITZORDUAK

### Firma bilketa bihar

HITZORDUAK kolektiboa firma biltzen arituko da bihar idea, pertsona eta proiektu guztien askatasunaren alde. Firma bilketa Plaza Berrian izango da 12:00etatik 14:00ak arte. □

## ETXERAT ELKARTEA

### Enkartelada gaur

ETXERAT elkarteak enkartelada egingo du gaur Euskal errepresaliatuen eskubideak aldarrikatzeko. Enkartelada arratsaldeko 20:00etan irtingo da Gudarien Plazatik. Etxeratek dei egin die herritar guztiei enkarteladan parte hatzeko. □

## ZINEA BITERIN

### 'Mortadelo y Filemón'

BITERIKO zinearen barruan, *Mortadelo y Filemón* filmea botako dute gaur hasi eta asteburu osoan. Komiki ezagunean oinarritutako filme hori gaur 22:30etan botako dute. Larunbatean, 17:00etan, 19:30etan eta 22:30etan, eta igandean, 17:00etan eta 19:30etan. □

 **IPARRA**  
SUKALDEAK  
Zikuñaga, 61 - lokala zbk. 7  
Ibarluze poligonoa  
Tel.: 943 55 67 60  
Fax: 943 33 19 75  
20120 Hernani


**SAGARDOTEGIA tolare**  
**IPARRAGIRRE**  
HERNANIKO SAGARDOA OSINAGA AUZOA  
943 55 03 28  
Asteazkenetik larunbatera zabalik. Larunbat eguerdian enkarguz.  
Tel. 943 55 03 28

**URGASKA, S.L**  
Gas instalakuntza  
Material salmenta  
K21  
Asistentzia teknikoak, gas eta berogintzan.  
Gas propano, butano eta naturala: mantenua  
Aristizabal 9 behea, Tel.: 943 33 37 40

**Etxeberri**  
  
**Taberna**  
Apirilak 17tik 22ra bitartean oporregatik **ITXITA** egongo da Etxeberri 2.blokea - 943 551267  
Egunero menuak, Asteburuan: Bazkariak eta afariak.

**AMEGAR**  
Etxe tresnak  
Altzariak  
  
Elektrogailuak  
TB- Bideoak-  
HI-FI-Opariak  
Sukalde altzariak  
Tel.: 943 55 11 25  
Faxa: 943 55 16 30

## ERREMONTA



Lizasok (ezkerrean) eta Ezkurak larunbatean probatuko dute elkar, buruz-buru.

## Ezkurra eta Lizaso buruz-buru Galarretan, beste txapeldun baten despedidan

■ Ezkurra eta Lizasok elkarren kontra jokatu dute bihar, Matxin II.aren omenaldian  
 ■ Ezkurra zazpi aldiz da txapeldun eta Lizaso da Ezkurrari txapela kendu dion bakarra.

ERREMONTZALEEK gozatu ederra hartzeko moduko jaialdia dute larunbatean Galarreta frontoian. Gaur egungo bi erremontista onenak elkarren kontra jokatu dute bihar, Matxin II.aren agurreko omenaldian. Jaialdia arratsaldeko 16:00etan hasiko da.

Matxin II.a bera txapeldun handia izana da eta 4 aldiz jantzi du buruz-buruko txapela. Azkenekoa 1994an. Geroztik, Ezkurra eta Lizaso dira txapel-

dun izatera iritsi direnak. Ezkurra zazpi aldiz eta Lizaso behin, hain zuzen ere, Koteto Ezkurra menpean hartuta.

“Sakean asmatu eta atzera jo” Doneztebeko bi txapeldunek gustora jokatu dute elkarren kontra, Matxin II.aren omenaldian. Ezkurraren ustez, buruz-buru ez dago taktikarik: “Sekretua da sakean asmatzea eta gero pelotazo onak jotzea atzera. *Mano-manoan*

ez dago beste misteriorik” dio txapeldun handiak eta aitortu du partidu gogorra izango dela.

Koteto Ezkurra aterako da faborito, baina, Lizasok ez du partidua galdutzat ematen. Txapela kendu zionekoari erreferentzia eginez esan du: “besteren batek irabazi dio Ezkurrari, baina, nik Frantziako Tourrean irabazi nion. Eta behin irabazi banion, zergatik ez bitan. □

## Behemendiko azoka bihar, Plaza Berrian

INGURUKO baserrietako produktuak egongo dira bihar Plaza Berrian, 09:30-etatik 14:00etara. Barazkiak, gazta, eztia eta eztiz eta argizariz egindako produktuak, postreak, ogia, kontserbak eta abar izango dira. Oraindik ez da barazki sasoirik onena, baina, ba-daude porruak, azelgak, azak, koliflorak babak eta abar. Dagoeneko, laister ha-siko dira letxuga, ilar eta beste ere. Orein haragiz egindako txorizo, saltxitxoi eta pateak izango dira.

Behemendiko azoka hileko bigarren larunbatea izaten da Hernanin. □



Behemendiko azokan barazki postuetako bat.

## HITZ BITAN

### OMENALDIA

**Felipe Sagarna Zapari omenaldia igandean.** Felipe Sagarna Zapa 1980ko apirilaren 19an hil zuen Batallon Vasco Español, etxe atarian. Bere lagun koadrilak omenaldia egiten dio urtero. Datorren igandean 23garren urteurreneko omenaldia egingo diote: Gudarien Plazatik 13:00etan irten eta bere etxe aurrean loreak jarriko dituzte eta bere omenezko kanta bat jo. Segidan Balantxako monolitoan loreak jarriko dituzte, Luis M<sup>a</sup> Elizondo eta Migel M<sup>a</sup> Arbelaitzen omenez. Bi hernaniar hauek BVEek hil zituen 1980ko irailaren 7an.

### MUS TXAPELKETA

**Xalapartan inskripzioa zabalik.** Xalaparta elkartearen zabalik dago mus txapelketarako inskripzioa. Izen ematea elkartearen bertan egin behar da apirilaren 23a baino lehen.

**Txantxangorri sari banaketa.** Txantxangorri elkartearen gaur banatuko dituzte museko sariak, afal ondoan. Bi bitara Goñi eta Bilbaok irabazi dute eta buruz buru Luis Garaiarrek.

### BERRIAK ELKARTEA

**Zirko tailerra gaur Plaza Berrian.** Berriak elkarteak zirko tailerra antolatu du umeentzat. Gaur izango dira Plaza Berrian kalejira, malabareak, soka, zangoak, monozikloa, akrobazia eta ekilibrio tailerra. Arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara.

### ATE JOKA

**Gaur aztoratzea plazan.** Ate Joka taldeak etxebizitza eskubidea aldarrikatzen du eta gaur egungo egoeran dauden zailtasunak salatzen ditu. Gaur, bihar eta etzi ekintzak antolatu dituzte horren bueltan. Gaur, Aztoratzea, 19:00etan plazan; bihar mural margotzea dute, 11:00etan plazan eta 16:30 hitzaldia Andragoton, *Okupazioa aukera*. Igandean, gaiaren inguruko eztabaida dago Gudarien Plazan, arratsaldeko 16:00etan. □

## ZERBITZUAK

### TELEFONOAK

● Taxiak: 943 550093  
 ● Udaltzaingoa: 943 333288  
 ● DYA: 943 464622  
 ● Autobusak: 943 556662  
 ● Anbulatorioa: 943 006666  
 ● Jokalari anonimoak: 943 331103

### FARMAZIAK

● Egunez: Etxebeste  
 Elkano 2  
 ☎ 943 552087  
 ● Gaez: Ansa  
 Andoain. Ondarreta  
 ☎ 943 591302

## IRAGARKI MERKEAK

Garajea salgai Urbietan kalean: **943 55 20 81**

Etxebizitza eta lokaletarako mota guztiak instalazio elektrikoak egiten dira (segurtasuna, energi aurreztea, erosotasuna,...). Deitu: **627 51 97 76**

Haur ra zaintzeko neska euskalduna behar dugu. Ordeztua: Astelehenean larunbatera 8:00etatik 16:00etara. Deitu: **943 55 20 98 (20:00etatik 21:00etara)**

Pertsona bat behar da jatetxe bateko sukaldean laguntzeko. Kotxea edo motoa behar ditu. Interesatuak deitu: **943 55 64 81**.

## BILDU HERNANI HAUTESKUNDEETAN

Gutako bakoitzaren ideia politikoak edozein direlarik, behean sinatzen dugunok Bildu Hernani plataformak datozen hauteskundeetan aurkeztu behar duela uste dugu, eta horregatik gure sinadura ematen dugu.

Nekane Erauskin (LAB)  
 Garbiñe Tijero (Txistularia)  
 Patxi Apeztexea (Hern. Inst. Zuzend.)  
 Joxean Goikoetxea (Musikaria)  
 Jexux Mari Irazu (Bertsolaria)  
 Eñaut Agirre (Bertsolaria)  
 Itziar Eizagirre (Bertsolaria)  
 Estitxu Eizagirre (Bertsolaria)  
 Unai Agirre (Bertsolaria)  
 Iñaki Zelaia (Bertsolaria)  
 Aritz Zerain (Bertsolaria)  
 Edorta Elozegi (Zinemagilea)  
 Joxe Elizondo (Irakaslea)  
 Maria Jesus Aizpurua (Gerentea)  
 Yolanda Prestameño (Merkataria)  
 Gregoria Goikoetxea (Merkataria)  
 Carmen Etxarte (Tabernaria)  
 Imanol Kamio (Musikaria)  
 Ibon Miner (Ereñotzuko auzoelk.)  
 Benjamin Miranda (Karabelko auzo.)  
 Nagore Barrenetxea (Martindegi. auzo.)  
 Roberto Espinosa (Sorgintxulo. auzo.)  
 Juan Manuel Garcia (Antziola. auzo.)  
 Arantxa Mujika (Osiñaga. auzoelk.)  
 Pili Alkorta (Akarregiko auzoelk.)

Miguel Jimenez (Latzunb. auzoelk.)  
 Gerardo Plaza (Xake jokalaria)  
 Arkaitz Bereziartua (Xake jokalaria)  
 Breogan Estevez (Xake jokalaria)  
 Juan Rodriguez (Errugbi Elkar.)  
 Joxe Kriz Elozegi (Errugbi Elk.)  
 Rafael Laretxea (Errugbi Elk.)  
 Jexux Garin (CDH Futbola)  
 Ricardo Ramos (CDH Futbola)  
 Bautista Biurrarena (CDH Futbola)  
 Agustin Fraile (CDH Futbola)  
 Carlos Ezeiza (CDH Futbola)  
 Julian Moreiro (CDH Futbola)  
 Jon Loran (CDH Futbola)  
 Mikel Tolosa (Tabernaria)  
 Pako Pavon (Tabernaria)  
 M Jesus Iturbide (Tabernaria)  
 Kristina Martinez (Tabernaria)  
 Iñaki Apeztexea (Tabernaria)  
 Andres Garcia (Dendaria)  
 Joseba Zarraga (Dendaria)  
 Iker Garmendia (Dendaria)  
 M Kruz Muguruza (Dendaria)  
 M Isabel Casco (Dendaria)  
 Karnele Mujika (Dendaria)

## ESKOLA KIROLA ASTEBURUKO PARTIDUAK

Futbola	Taldeak	Non	Noiz	Waterpolo	Taldeak	Non	Noiz
Infantilak	Langile -Auxiliadora	Kiroldegia	Bihar, 11:45	Infantilak	Langile-Urumea	Kiroldegia	Bihar, 13:00
Boleibola		Non	Emaitza	Infantilak	Mogel Isasi-Amara	Kiroldegia	Bihar, 14:00
	Sustapen partiduak	Kiroldegia	Bihar, 11:45	Kadeteak	Mogel Isasi-Amara	Kiroldegia	Bihar, 13:00
				Kadeteak	Langile-Amara	Kiroldegia	Bihar, 14:00